

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

**Etxeak edateko urez hornitzeagatik eta saneamenduagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenatza**

#### I. XEDAPEN OROKORRA

##### 1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, etxeak edateko urez hornitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

#### II. TASA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

##### 2. artikulua

Instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen dituztenek daukate ordaintzeko beharra.

#### III. ZERBITZUA

##### 3. artikulua

Erabiltzaileen edo harpidedunen eta toki administrazioaren arteko harremanak ekonomiko-administratiboak izango dira, zerbitzuak erabiltzen duen kudeaketa sistema edozein dela ere, eta herritarren beharrak asetzeko erabiltzen dituen langileak eta instalazioak zerbitzura atxikitzeko era zeinahi dela ere.

##### 4. artikulua

Udalak antolatuko du zerbitzua, eta publizitatea emango dio antolaketa horri; bestalde, izendapen-agiriak emango zaizkie zerbitzura atxikitako langileei, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten eta horren bermea izan dezaten. Zerbitzuaren obrak eta instalazioak jabetza publikoaren ondusunak dira, eta udalari dagokio ondasun horiek inbertsio planen bidez gehitzea. Plan horiek, bestalde, zerbitzuaren ur emaria handitzeko izan beharko dute, eta ur horien kalitatea hobetzeko.

##### 5. artikulua

Zerbitzuak ez du izango, inolaz ere, irabazteko xederik, baina mantendu egin beharko da aurrekontuaren oreka, eta hori aginta- ritzak onartutako tarifa beregainak ezarritz egingo da.

#### IV. HARPIDETZA POLIZAK

##### 6. artikulua

Edateko ura eta saneamendu zerbitzua erabili nahi duen pertsona edo erakunde orok zerbitzuaren bulegora jo beharko du, eta bertan emango diote horniduraren baldintzen berri; interesdunak harpidetza poliza bete beharko du kontsumo mota bakoitzerako propio ezarrita dauden inprimakietan. Eskaria egiten duena finkaren jabea ez bada, jabearen baimen idatzia aurkeztu beharko du.

##### 7. artikulua

Ez da inolako ur hornidurarik egingo, harik eta erabiltzaileak dagokion harpidetza poliza sinatu arte.

**8. artikulua**

Zerbitzuak harpidedunekin izenpetuko du beti hornidura kontratua; hala ere, beharrezko baimenak eman dakizkioke ezinbes- tekoak diren instalazioak jartzeko, instalazio horiek jarri behar diren finken jabeak edo finka daukatenak harpidedunak ez badira.

**9. artikulua**

Harpidetza polizak ez du epe mugarik izango, baina erabiltzaileak, zerbitzua utzi nahi izanez gero, baja eman baino hilabete lehenago jaki- narazi beharko du hornidura kontratua bukatutzat eman nahi duela.

**10. artikulua**

Zerbitzuan baja eman ondoren hornidura berriro kontratatu nahi izanez gero, beste harpidetza poliza bat izenpetu beharko da.

## V. KONTSUMOA

**11. artikulua**

Zerbitzuak harpidedunarekin batera ezarriko du —higiezinaren, lokalaren edo urez hornituko den bulegoaren baldintzak kontuan hartuta— zeintzuk izango diren horniduraren gutxieneko ur-emaria, instalazioaren neurriak eta ezaugarriak, eta kontagailuaren ahalmena.

**12. artikulua**

Erabiltzaileak ezin izango du jasotzen duen uraren erabilera aldatu, beste helburu horretarako harpidetza poliza aldeztetik izenpetu ez badu. Erabiltzaileak ezin izango du, era berean, funtsezko aldaketarik ezarri instalazioaren ezaugarrietan, ezta kontagailua bere kabuz aldatu edo beste batez ordezkatu ere; gainera, ezin izango die urik eman beste pertsona edo erakunde batzuei, ez hornidura banatu harpidedunaren ustezko maizter edo errentarien artean.

**13. artikulua**

Edateko uraren horniketa honakoa izan daiteke:

1. Etxeko erabilerarako kontagailua, hau da, elikadurarako eta norberaren garbiketa eta higienarako.

2. Industriako erabilerarako kontagailua.

a) Ura garbiketa eta higienarako baino erabiltzen ez duten industria eta saltokiak.

b) Ura osagai edo lehengai gisa erabiltzen duten industriak (okin- degiak, izotz fabrikak, granjak...), hau da, ura fabrikazio prozesuan erabiltzen dutenak.

Aurrekoetan ez bezalako horniduretan, berdin dio industria erabi- lerarako zein erabilera publiko edo pribaturako, zerbitzuak propo- satuko du kasu bakoitzean (dauzkan datuen arabera) zein den ezarri beharreko ur-emaria, eta emari horren arabera zehaztuko dira baldintzak eta tarifak.

**14. artikulua**

Zerbitzua ez dago behartuta nekazaritzarako ura ematera, ezta lore-hazkuntza ustiategi- tarako, lorezaintzarako edo zuhaitzietarako eta igerilekuetarako ere. Horrelako hornidurarako beharrezkoak diren ur emari handiak izatekotan, orduan bakarrik baimendu daitezke harpidetza poliza horiek; kasu horietan, industriarako tarifaren arabera kobratuko da kontsumoa.

**15. artikulua**

Harpidedunei etengabe eskainiko zaie ur hornidura. Zerbitzuak ezin izango dio ur hornidura eten harpidedunari, ordenantza honetan ezartzen diren kasuetan izan ezik.

**16. artikulua**

Aurreko artikuluan ezarritakoari dagokionez, honako hauetan eten ahal izango da hornidura:

1. Hornitzea ezinezko bihurtzen duen matxuraren bat gertatzen bada zerbitzuaren edozein instalaziotan.
2. Ur emari erabilgarria galtzean edo gutxitzean, horrek ur horniduran, ur bilketan edo uraren presioan nolabaiteko gabezia sortzen badu.
3. Biztanleria handitzean, baldin eta horrek dauden horniduren eta kontsumo beharren artean desoreka sortzen badu, harik eta hornidura horiek gehitu arte.
4. Hornidura baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren instala- zioetako obrak, konponketak edo hobekuntzak irauten duten bitartean.

**17. artikulua**

Zerbitzuak, egoera bakoitzaren larritasunaren arabera, ahalik eta azkarren ohartaraziko die harpidedunei hornidura berehala eten edo murriztuko duela, baita zerbitzua etenda egongo den denbora zehaztu ere. Larrialdi kasu garbietan edo ezinezkoa izan denean utz dezake alde batera zerbitzuak irregulartasunaren berri duen unean bertan ohartarazpena egin gabe; horrelakoetan, gerora egin beharko du, etenaren arrazoiaren eta ustez iraun lezakeen denboraren berri emanaz.

## VI. HARGUNEAK

**18. artikulua**

Honako hau da ur hartunea: hurbilen dagoen banaketa hoditik hornitu nahi den higiezinera ura eramaten duen adarra. Adar hori hazbete erdiko hodi eroale batek osatuko du. Ur hartune bakar batetik horniketa ugari egin daitezke finka berera.

**19. artikulua**

Adarraren edo hartunearen ezaugarriak, haren instalazioa, zainketa eta mantentze lanak erabiltzaileak kontratatuko ditu zerbi- tzuarekin, edo higiezinaren egileak edo finkaren jabeak, baina beti egingo da toki administrazioaren aginpide teknikoaren menpean. Baimena lortzean ordainduko zaio hartune tasa administrazio batzarrari.

Adarra edo hartunea zerbitzuaren ikuskaritza teknikoaren menpean jarriko da, eta eskatzaileak ordainduko du, espaloian, higiezinaren fatxadaren ondoan, pasabidearen giltza utziko da, eta hortik aurrera, jabeak izendatutako kontratista edo industrialak instalatzen jarraituko da.

Eraikinak banaketa sarerik ez dagoen eremuetan egiten badira, eta obrak egiteko baimena administrazio batzarrak eman badu, sare berria eskatzailearen kontura izan dadila eska daiteke, baina zerbi- tzuaren ikuskaritza teknikoaren menpe egin beharko da.

Aurrekoa kontuan izanik, hartune guztiek bide publikoan izango dute erregistro-giltza, eta zerbitzuak bakarrik erabili ahal izango du.

Giltza hori ezin izango dute erabili ez harpidedunek, ez jabeek ezta hiru- garren pertsonak ere.

**20. artikulua**

Normalean, adar edo hartune bat egongo da finka, eraikin edo higiezin bakoitzari zerbitzua emateko. Higiezinaren zati bateko maizter edo errentari batek hornidura berezi edo banakakoa nahi badu, eta horretarako justifikaturiko arrazoirik badago, jar dezake hartune hori, baina udalak aurretik aldeko txostena eman ondoren.

**21. artikulua**

Jabeek, eraikitzaileek edo erabiltzaileek pasoko giltzatik aurrera jarriko dituzte instalazioak, hau da, finkaren fatxadatik edo mugatik. Horrela, ur ihesik egonez gero, ura bide publikora isuriko da, eta ez ditu kaltetuko, ez higiezinak, ez barnean dauden jenero edo instala- lazioak. Barne instalazioen ardurak aipatutakoek izango dute.

**22. artikulua**

Kontratua amaitutakoan edo deuseztatutakoan, adarra libre geratuko da jabearen esku; interresdunak bost egunen buruan adierazi behar dio administrazioari, era frogagarrian, adarra bide publikotik kentzea erabaki duela. Horrela egiten ez badu, adar hori ez zaiola interesatzen ulertuko.

## VII. KONTAGAILUAK

**23. artikulua**

Edateko uraren hornidurarako kontagailuak eraikin edo finka bakoitzaren kanpoko aldean jarriko dira, harpidedun bakoitzeko bat, eta denak toki egokian, erraz iristeko moduko lekuan eta eraikinaren aurrean jarri den ixteko giltzatik ahalik eta hurbilen. Hori horrela izanik, kontagailuak konpartimentu edo kutxa batean egongo dira, bateria deritzon edo antzeko sistema baten arabera; horrela, zerbitzuko langileak erraz apuntatuko ditu kontagailu guztien zehaztasunak egintza bakar batean. Ixteko bi giltzaren artean jarriko dira konta- gailuak, matxurarik gertatuz gero, zerbitzuko langileek erraz kendu ahal ditzaten eta berriro jarri. Kontagailutik abiatuta, hartunea zuzenean joango da harpidedunaren instalazioetara, inolako adarrik gabe. Erabat debekatuta dago kontagailu bera harpidedun batek baino gehiagok erabiltzea.

**24. artikulua**

Administrazio batzarrak ezarriko du harpidedunak erabili behar duen kontagailu mota, haren diametroa eta kokagunea, eta hori harpi- dedunak polizan jarri duen kontsumoaren arabera egingo da. Benetako kontsumoa eta aitortzen dena bat ez badatoz, udalak kontagailu egokia jartzeko eskatuko dio harpidedunari, eta erabiltzailearen kontura izango da ordainketa. Hartu- nearen diametroa hazbete erdikoa izango da.

Legez onartutako sistemetakoak izango dira kontagailu guztiak, eta ipini aurretik Gobernuak egiaztatuko ditu ofizialki. Jarri ondoren, eta nahiz eta erabiltzailearenak izan, zerbitzuko langileek bakarrik erabili ahal izango dituzte; horretarako, behar bezala zigilatuko dira jartzen diren bakoitzean.

**25. artikulua**

Kontagailua baldintza onetan mantendu behar da, zainduta eta funtzionamendu egoera onean. Administrazio batzarrak beharrez- kotzat jotzen duen ikuskaritza oro egin dezake, bai eta egokitze jotzen dituen konponketak ere. Konponezina den matxuraren bat gertatuz gero, hura aldatzera behartu dezake erabiltzailea.

**26. artikulua**

Kontagailua harpidedunarena izango da, baina instalazioa udalaren zuzendaritza teknikoaren pean egingo da; matxuraren bat gertatuz gero, zerbitzuak izango du erabiltzeko eta konpontzeko eskumen osoa, baina konponketa harpidedunaren kontura izango da.

**27. artikulua**

Iruzurra izango da harpidedunak zein udalaren baimenik ez duen pertsona orok egindako edozein manipulazio, dela kontagailuan, dela hartunean dela instalazioetan, baldin eta, ura kontagailutik pasa ez dadin edo egindako kontsumoa behar bezala ager ez dadin, egiten bada.

## VIII. BARRUKO INSTALAZIOAK

**28. artikulua**

Kontagailutik abiatuta harpidedunak, nahi duen eran bana dezake ura bere erabilerarako, eta nahi duen eran egin horretarako lanak, zerbitzuak eskulanean eta beharrezkoak diren materia- letan parte hartu gabe; harpidedunak hori egin dezake zerbitzuak instalazioa jartzeko baimena eman behar badu ere hornidura egokia dela bermatze aldera. Bestalde, laguntza eta aholkua eman diezaioke eskatzaileari, edozein gaitan.

Zerbitzuaren ikuskapen teknikoaren pean egongo da barruko banaketa, edozein momentutan zuzen dagoela egiaztatzeko, eta iruzurrak eta kontrataturiko kontsumoan gerta daitezkeen gabeziak saihesteko.

### **29. artikulua**

Harpidetza poliza bakoitzari dagokion barneko instalazioak ezin izango zaizkio lotu beste jatorri bat duen ura banatzen duen beste sare edo hodi bati. Era berean, ezin izango dira uztartu beste harpidetza- poliza bati dagokion instalazioarekin, ez eta udalaren ura berme tekniko edo sanitariorik –udalaren ustez– ez duen beste batekin nahastu ere.

### **30. artikulua**

Erabiltzaileak, barne banaketarako, andel hartzaileak, erregulazioak edo erreserbarakoak jar ditzake. Andel horiek garbitu eta desinfektatu egingo dira, eta, kutsadurarik sortzen badute, erabiltzailea izango da horien erantzule. Era berean, ura galtzea saihesteko sistema automatiko edo eskuzkoak edukiko dituzte, nahiz eta ur hori kontagailuak erregistraturikoa izan; gauzak behar bezala ez zaintzea zerbitzua galaraztea da.

### **31. artikulua**

Era berean, presio ekipoak edo bestelako artikulatu teknikoak jar daitezke horretarako ezaugarriak dituzten higiezinetan, baldin eta hartune beretik ura hartzen duten zenbait harpidedunentzako edo barruko instalazio baten zenbait zatirentzako kontsumoa orekatzen laguntzen badute.

Edozein gailu tekniko erabiltzen dela ere, honako hau bermatuko da nahitaez: edateko ura kontagailutik pasatuko dela higiezinaren sarrerako hartunean kokatuta dagoen ixteko giltzatik igaro eta berehala, ez dadin egon iruzur egiteko edo zerbitzua oztopatzeko arriskurik, eta aplikazio horrek sare nagusiko beste ezein harpideduni eragin ez diezaion.

## **IX. KONTSUMOA**

### **32. artikulua**

Harpidedunak harpidetza polizan ezartzen diren baldintzen eta ordenantza honetan horniketari buruz zehaztutakoaren arabera kontsumituko du edateko ura.

### **33. artikulua**

Kontagailuak erregistratzen duena hartuko da benetako kontsumotzat. Kontsumo hori arauzko minimoa baino txikiagoa denean, minimo hori hartuko da kontsumitutzat, edozein dela ere kontagailuak markatzen duen zenbakia.

### **34. artikulua**

Kontagailuak matxuraren bat duelako edo ondo ez dabilelako egin den kontsumoa zehazki ezin bada jakin, aurreko urteko aldi berbereko ordainagiriari zegokion ur emaria kontsumitu dela joko da; horrelakorik egon ezean, azken hiru ordainagiriaren batez bestekoa aterako da. Oro har, benetan kontsumitu dena zenbatesteko ahalegina egingo da. Horrelakoetan, udalari dagokio kontagailua ahal bezain pronto aldatzea, eta erabiltzaileari dagokio antzeman dituen akatsak lehenbailehen jakinaraztea zerbitzuari.

### **35. artikulua**

Erabiltzailearen bat kontagailuak erregistratzen duen kontsumoarekin ados ez badago, udalak Industria Ordezkaritzari kontagailua berriro kudeatzeko eta egiaztatzeko eskatuko dio. Horren gastuak harpidedunak ordainduko ditu, erregistratutakoa ongi badago; kontrakoa gertatzen bada, dagokion zuzenketa egin beharko da.

## X. SANEAMENDUA

**36. artikulua**

Ordenantza honen ondorioetarako, etxeko isurketatzat hartuko dira etxebizitza batetik edo antzekoren batetik datozen hondar-gai solido, oretsu, likido edo gaseoso guztiak; eta etxekoak ez diren isurketatzat, berriz, hondar-gai solido, oretsu, likido edo gaseoso guztiak, hozteko urak barne, manufaktura edo industria-jarduera baten ondorioz edo baliabide naturalak garatu, berreskuratu edo prozesatzearen ondorioz sortutakoak.

**37. artikulua**

Ordenantza honetan jasotako arauak aplikatuko zaizkie, hondakin-urak, publikoak zein pribatuak eta etxekoak zein etxekoak ez direnak, isurtzeko gai diren etxebizitza, instalazio, establezimendu, jarduera, industria edo biltegi guztiei, edozein dela ere haien titularra, lehendik daudenak edo etorkizunean ezartzen direnak, udal-mugartean kokatuta daudenean, eta generikoki jarduera deituko direnak.

**38. artikulua**

Ordenantza honetan jasotzen dira etxeko eta etxekoak ez diren isurketen baldintzak eta mugak, estolderia-sarean, araztegian, ibilgu hartzailean eta azpiproduktuen balizko aprobe-txamenduan duten eragina kontuan hartuta, eta instalazioen mantentze-lanez arduratzen diren langileei arriskuak sortzea eragozteko.

**39. artikulua**

Era berean, isurketak husteko gailuei, estolderia-sarerako hartuneei eta, oro har, helburu horretarako ezarritako instalazioei aplikatuko zaizkie hirigintzako edo urbanizazioko plangintzako tresnetan jasotako arauak, bai eta haiei eragiten dieten erregulazio sektorialak ere.

**40. artikulua**

Erabat debekatuta dago zuzenean edo zeharka estolderia-sarera hondakin-urak edo beste-lako hondakin solidoak, oretsuak, likidoak edo gaseosoak isurtzea, beren izaera, propietateak eta kantitatea direla eta, estolderia-sarean ondorengo hauetakoren bat edo batzuk sortzen dituztenak edo eragin ditzaketenak, bakarrik edo beste hondakin batzuekin elkarreraginean:

a) Nahaste sukoiak edo leherkorrak.

b) Udal estolderia sarea osatzen duten materialetan, instalazioetan eta araztegiaan ondorio korrosiboak izan ditzaketenak.

c) Ingurumen-baldintza gogaikarri, kaltegarri, toxiko edo arriskutsuak sortzen dituztenak, instalazioak garbitzeaz, mantentzeaz edo funtzionatzeaz arduratzen diren langileen sarrera edo lana eragozten edo zailtzen dutenak, edo edozein eragozpen edo arrisku publiko eragin dezaketenak, eta, zehazki, kolektoreetan gas toxikoak sor ditzaketenak.

d) Sedimentuak, inkrustazioak edo beste oztopo fisiko batzuk sor ditzaketenak, kolektoreek uraren jario askea oztopatuz eta estolda-sarea garbitzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko lanak oztopatuz, hala nola Errautsak, ikatza, hondarra, lokatza, lastoa, txirbila, beira, plastikoak, trapuak, lumak, mundruna, zura, zaborra, simaurra, metalezko piezak, animalien hondakinak, ilea, erraiak, baxera piezak, amiantoak, edozein materialetako ontziak eta antzekoak, osorik edo, hondakinak izateagatik, birrinduta.

**41. artikulua**

Debekatuta dago produktu hauetako edozein estolderia-sarera isurtzea:

a) Gasolinak, naftak, petrolioa, eta bitarteko destilazio-produktuak, bentzenoa, toluenoa, xilenoa, eta edozein disolbatzaile edo likido organiko, uretan eta erregaietan edo sukoietan nahastezina.

b) Oinarri minerala edo sintetikoa duten industria-olio guztiak, hasieran esleitu zaien erabilerarako desegoki bihurtu diren lubrifikatzaileak, eta, bereziki, errektuntza-motorren eta transmisio-sistemen olio erabiliak, bai eta olio mineral lubrifikatzaileak, turbinetarako olioak, sistema hidraulikoak eta beste emulsio batzuk ere.

c) Beren kontzentrazio edo ezaugarri toxiko edo arriskutsuengatik tratamendu espezifikoa edo eragin kaltegarri potentzialen aldizkako kontrola behar duten hondakinak, eta, bereziki, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko legerian araututakoak.

d) 6tik beherako edo 10tik gorako pH balioa duten hondakin-urak.

e) Disolbatzaile organikoak eta pinturak, horien proportzioa eta kantitatea edozein dela ere.

f) Kaltzio karburoa eta arriskutsuak izan daitezkeen beste substantzia solido batzuk (hidruroak, peroxidoak, kloratoak, perkloratoak, bromatoak, nitruroak, sulfuroak, etab.).

g) Abuztuaren 12ko 2.519/82 Errege Dekretuan eta 1.753/87 Errege Dekretuak onartutako aldaketan ezarritako mugak gainditzen dituzten hondakinak, isotopoak edo produktu erradioaktiboak. Dekretu horiek erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko Erregelamendua arautzen dute.

h) Etxean egiten diren ohiko isurketekin parekatu ezin den edozein substantzia.

#### **42. artikulua**

Etxeko isurketetarako baimenak ematea inplizituki doa Zalduondoko Udalarekin egindako ur-hornidurako kontratuan.

#### **43. artikulua**

Estolderia-sarera etxeoak ez diren isurketak egiteko baimena emateko, instalazio-proiektuan jasotako edo instalazio-lizentzian finkatutako neurri zuzentzaileen ezarpena eta eraginkortasuna egiaztatu beharko dira. Horretarako, irekitzeko lizentzia edo martxan jartzeko baimena izan beharko da.

#### **44. artikulua**

Etxekoa ez den isurketa egiteko baimena behin-behinekoa izan daiteke, isurketaren izaera dela-eta geroko saiakuntzak egin behar direnean edo instalazioen funtzionamendua egiaztatu behar denean. Kasu horietan, entseguak edo egiaztapenak egiteko epea finkatuko da, eta, amaitutakoan, behin betiko baimena eskatuko du interesdunak. Epe horretan, ur-hornidurako behin-behineko baimenak emango dira.

#### **45. artikulua**

Jarduera baten titularrak lehengaietan, makinerian, ekoizpen-prozesuan, arazketa edo saneamendu-sisteman egin nahi duen edozein aldaketa, estolderia-sarera egiten diren isurketen araubidean eragina izan dezakeena, Udalari jakinarazi beharko dio, baimena emateko edo, hala badagokio, dagozkion zuzenketak ezartzeko.

#### **46. artikulua**

Nolanahi ere, Udalak ezarritako jardueri eskatu ahal izango die ordenantza honetan jasotako eskakizunak betetzeko antzemandako akatsak zuzentzeko.

#### **47. artikulua**

Udalak, bere ikuskapen-zerbitzuen bidez, ofizios edo interesdunak eskatuta, estolderia-sarera isurtzen dituzten jarduerak ikuskatu eta zainduko ditu aldian-aldian.

Ikuskapenak eta zaintzak isurketaren kalitateari eragin diezaioketen jardueren instalazioak hartuko ditu barne, eta, bereziki, erregistro-kutxatila, saneamendu-eroanbideak, isurketa-produktuen prozesuak eta aurretratamenduko edo uren arazketako instalazioak.

**48. artikulua**

Ikuskapen-bisitak behar bezala egiaztatutako udal-langileek egingo dituzte, jardueraren titularrari aldez aurretik ohartarazi gabe.

Etxebizitzen edo jardueren titularrek ikuskapena egitea erraztu beharko dute, eta, horretarako, honako jarduketa hauek egin beharko dituzte:

a) Ikuskatzaileak isurketarekin zerikusia duten instalazioetara sar daitezen erraztea, baita kontrol-tresneria muntatzea ere.

b) Enpresak autokontrolerako erabiltzen dituen tresna guztiak erabiltzen uztea, bereziki, emariak aforatzeko, laginak hartzeko eta analisiak egiteko erabiltzen direnak.

c) Ikuskatzaileen esku jartzea ikuskaritzari buruzko datuak, lan-partreak, analisiak eta eskatzen duten informazio guztia.

**49. artikulua**

Nahitaezkoa izango da jarduera eta etxebizitza bakoitzerako edo etxebizitza-multzo bakoitzerako saneamendu independentea egotea, estolderiaren udal-sarearekin konektatu arte; horretarako, lehendik dauden pabiloiak zatitzeko eragiketetan partzela-unitatea mantenduz edo partzela berean atxikitako eraikinetan saneamendu independenteak ezarri beharko dira eraikuntza-unitate bakoitzerako.

**50. artikulua**

Estolderiaren udal-sarera isurtzen diren jarduera guztiak erregistro-kutxatila bakarra izango dute hondakin-urentzat. Kutxatila horrek jardueratik datozen guztiak jasoko ditu, eta bere lurzatiaren barruan egon beharko du, ikuskapen-zerbitzuentzat irisgarria den leku batean, inolako oztoporik gabe eta bere eginkizuna betetzeko garbitasun-egoera egokian.

Neurriek eta ezaugarriek udal-zerbitzu teknikoek laginak jasotzeko eta isuritako emaria zehazteko aukera emango dute.

**XI. KOBATZEAREN OINARRIAK****51. artikulua**

Kobratzeko kopurua arautzeko, ur kontsumoa eta horren helburua hartuko dira kontuan, ordenantza honetako tarifen idazpuruetan ezarritakoarekin bat etorritik.

**XII. TARIFAK****52. artikulua**

Harpidedun bakoitzak kontsumitutakoaren ordainagiria udalak egingo du, agintaritzak une bakoitzean onartutako tarifak zorrozki aplikatuz.

**53. artikulua**

Ur kontsumoa edozein dela ere, udalak honako hauek ere kobratuko dizkio harpidedunari: kontagailuak onik zaindu, hartuneak egiteko lanak burutu, instalazioak ikuskatu, bide publikoko obrak egin eta lotura eskubideak egitearen ondoriozko tasak eta prezioak, bai eta tarifak izeneko idazpuru orokorraren barruan dagokion agin- taritzak onartutako gainerakoak ere.

**54. artikulua**

Eranskinetan daude zehaztuta tasa horien tarifak.

**55. artikulua**

Kontsumitutako ura urtean behin kobratuko da. Dena dela, udalak eta kontsumitzaileek sei hilabetean behin kobratzea komenigarria den aztertuko da.



**56. artikulua**

Aldeetako edozeinek eskritura publikoa egiteko eskatuz gero, harpidedunak ordainduko ditu gastuak (udalarentzako benetako kopia barne), bai eta estatuaren, autonomia erkidegoaren, probintziaren edo udalerraren alde sortuta edo sortzeke dauden edozein motatako zerga eta kontribuzioak ere, polizari dagozkionak zein, horren menpe egonik, eranskinetan eta oharretan agertzen diren kontsumoari buruzkoak.

**57. artikulua**

Harpideduna behartuta dago bere instalazioak nola udalarenak eta kontratatutako ura era egoki eta arrazionalen kontsumitzera, gainerako erabiltzaileei kalterik eragin gabe.

## XIII. HOBARIAK

**58. artikulua**

Honako familia-unitate hauek eskuratu ahal izango dute tasa murriztua: 4 pertsonatik gorako familia-unitateak eta gutxieneko soldataren halako bi baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak, paragrafo honetan aipatzen den hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko urterako ezarria bada.

**59. artikulua**

Familia-unitatetzat hartuko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehaztutakoa.

**60. artikulua**

Familia-errentatzat hartuko da familia-unitatean jasotzen diren diru-sarrera guztien batura, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotuta ez daudenak barne.

**61. artikulua**

Gutxieneko soldataren halako bi baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familia unitatentzako hobariak, paragrafo honetan aipatzen den hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko urterako ezarria, bateraezina izango da erreferentzia horren gainean aplikatzen den beste edozein hobari-motarekin, baita familia ugariarenarekin ere.

**62. artikulua**

Tasa murriztua aplikatzen zaion etxebizitzak ohiko etxebizitza izan behar du, eta etxebizitzaren jabeak pertsona fisikoa izan behar du

**63. artikulua**

4 pertsonatik gorako familia-unitateek lehenetsita izango dute tasa murriztua. Horretarako, udalak udal-erroldan dauden datuak erabiliko ditu, eta ofizioz egiaztatu ahal izango du pertsonak etxebizitzan daudela. Udal-erroldan inskribatuta ez dauden 4 kide baino gehiagoko bizikidetzak-unitateei ez zaie tasa murriztua aplikatuko.

**64. artikulua**

Errentagatiko tasa murriztua baliatu nahi duten familia-unitateek urte bakoitzeko otsaila eta uztaila bitartean aurkeztu beharko dute eskaera, murrizketaren xede den higiezinak identifikatuz, bai eta familia-unitateko kide guztien onura fiskalaren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua eta PFEZren mende ez dauden familia-unitateko kideen diru-sarreraren zerrenda ere.

## XIV. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

**65. artikulua**

Udalaren hornidura zerbitzuaren aurkako edozein arau-hauste larri eginez gero, harpidetza poliza deuseztatu egingo da berehala, eta ur hornidura eten. Egintza horiek, bestalde, toki ogasunari egindako iruzurra ere izan daitezke.

**66. artikulua**

Aurreko artikuluan xedatutakoetarako, honako egintza hauek izango dira arau hauste larri:

1. Hitzartutako ur horniduraz abusatzea, harpidedunaren ohiko jarduerarekin bat ez datozen ur emariak justifikatutako arrazoirik gabe kontsumituz. Ez da izango justifikatutako arrazoa kontsumoa neurririk gabe handitzea eragiten duen harpidedunaren instalazioetako matxura edo ur ihesa egotea.
2. Horniduraren erregularatasuna erabilera txarrekin oztopatzea, murrizketen edo hornidura mugatuaren garaian erabilera horiek beste erabiltzaile batzuen hornidura eragotz badezakete.
3. Urari polizan adierazitakoaz besteko erabilera ematea.
4. Zerbitzuaren baimenik gabe hirugarren batzuei ura ematea, dela dohainik, dela kostu bidez.
5. Zerbitzuaren ura beste aprobetxamendu batzuetatik ateratzen denarekin nahastea, batez ere nahasketaren ondorioz kutsadura arriskua dagoenean.
6. Zerbitzuaren baimenik gabe zerbitzuko langileei ordaintzea, nahiz eta langile horiek harpidedunarentzako lanak egin.
7. Harpidedunaren instalazioak, ur hartuneak edo kontagailuak dauden lekuetara langileei sartzen ez uztea, baldin eta zerbitzuari iruzur egin zaiola edo zerbitzua eragotzi dela susmatzeko arrazoirik badago.
8. Kontratuaren epea amaitutakoan edo kontratua deuseztatu- takoan ura kontsumitzen jarraitzea.
9. Justifikaturiko arrazoirik gabe ixteko giltzak ireki edo ixtea, zigi- laturik egon edo ez.
10. Instalazioak manipulatzeko, benetan kontsumitu den ur emaria kontagailuetan erregistratua izan ez dadin.
11. Kontsumitu den uraren gastuak edo edateko uraren kon- tsumoari buruzko eskubide eta tasak ordaintzeari uko egitea, justifi- katuriko arrazoirik gabe. Justifikatu gabeko arrazoitzat jotzen da ordainketa urtebete baino gehiago atzeratzea, ordaindu beharreko diru kopuruari edo beste edozein gairi buruzko erreklamazio arra- zoituren bat erabakitzeko ez badago.
12. Udalak hala eskatu eta gero, ur kontagailurik ez jartzea.
13. Murrizketak daudenean ura erabiltzea nekazaritzan, lore ustiapenetan, lorezaintzan, zuhaitzietan, ibilgailu edo antzekoen garbiketean, edo igerilekuak betetzeko.

**67. artikulua**

Arau hauste arinak izango dira egiteak edo ez-egiteak, baldin eta ez badira aurreko artiku- luan zehaztutakoak bezain larriak. Arau hauste arinak behin eta berriro egitea arau hauste larria izango da.

**68. artikulua**

Falta arintzat jotzen diren faltak 750 eurorainoko isunekin zehatu ahal izango ditu udalak, eta falta larriak, berriz, 1.500 eurotik 3.000 eurorainoko isunekin.

**69. artikulua**

Iruzurra dakarten egitateengatik espedientea abiaraziko da, eta toki administrazioaren arloko xedapenen arabera izapidetuko da.

Ohiko jurisdikzioan salatuko dira delituak diren egintzak, hala nola zigiluak haustea, insta- lazioak suntsitzea, urak kutsatzea eta zigor kodean zehaztutako gainerakoak.

**70. artikulua**

Indarrean dauden legeek xedatzen duten premiamendu probidentzia aplikatuko zaie zordunei.

Edateko uraren hornidura ordaintzeari behin eta berriro uko egiten bazaio, hornidura eten egin ahal izango da, horren gainean legeak dioenaren arabera.

**71. artikulua**

Harpidedunak baino ez du izango erantzukizuna neurritz gain kontsumitu izanagatik hirugarrenei sortutako kalteengatik.

**72. artikulua**

Saneamenduaren arloko ordenantza honetako hutsegiteak honako arau-hauste hauek izango dira:

- a) Jardueran aritzeko eta instalazioak abian jartzeko baimenik ez izatea.
- b) Estolderia-sarea isurketa-baimenik gabe erabiltzea.
- c) Ordenantza hau aplikatzeko eskatutako elementu zuzentzaileak instalatzean erresistentzia edo atzerapena izatea.
- d) Dauden jarduerak 15 eta 24 artikuluetan ikuskapen egokirako ezarritako eskakizunetara egokitzeko epeak ez betetzea.
- e) Debekatutako edo itxitako aparatuak edo instalazioak martxan jartzea.
- f) Debekatutako isurketak edo tolerantziarako mugak betetzen ez dituztenak isurtzea, eta 8. artikuluan aldizkako edo noizbehinkako isurketetarako ezarritako mugak gainditzea.
- g) Udalari ez jakinaraztea estolderia edo arazketa-instalazioetan larrialdi-egoera bat edo berehalako arriskua dagoela, eta larrialdi edo arrisku-egoeraren ondoren dagokion txostena ez igortzea.
- h) Ustekabeko deskargak ordenantza honen mugetatik gora murrizteko neurriak ez hartzea.
- i) Ordenantza hau betetzen dela zaintzeko ikuskaritza-lana oztopatzea.
- j) Ikuskapen-lanak zailtzen dituzten isurketa-instalazioak modu egokian ez mantentzea.

**73. artikulua**

Faltak 6.000 eurorainoko isunarekin zehatuko dira, eta instalazioak aldi baterako edo behin betiko itxiko dira.

Aldi baterako edo behin betiko ixteko zehapena hiru isun ezarri ondoren bakarrik ezarri ahal izango da.

Hala ere, egindako hutsegitea jardueran aritzeko baimenik ez izatea bada, itxiera ezarri ahal izango da, eska daitezkeen baimenak lortu arte.

**XV. XEDAPEN IRAGANKORRAK**

1. Ordenantza hau indarrean sartzen denean sinatuta dauden kontratuak ordenantzan ezarritakora egokituko dira, eta erabiltzaileak behartuta daude bertan zehazten diren arauak betetzera. Zenbait kasutan, hala ere, zerbitzuak erabaki dezake harpidedunek dituzten aurretiko eskubideak errespetatzea. Edonola ere, eskubide horiek iraungi egingo dira alde aurretik indarrean zegoen kontratu hori amaitzearekin.

2. Xedapen honen salbuespen gisa, kontagailuak baterian edukitzeko betebeharra adierazten da.

3. Ordenantza honek, indarrean jartzen denean, ondoriorik gabe utziko du eta indargabetu egingo du edateko uraren etxeko hornidura arautzen duen Ordenantza Fiskala, 2009ko otsailaren 20ko ALHAOn argitaratu zena, 22. zenbakian, eta haren aldaketak 2015eko abenduaren 18koa eta 2017ko abenduaren 27koa, baita 2015eko abenduaren 28an zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskaleko estolde-ria-zerbitzua aurkezteagatiko tasaren 2. Epigrafeare, orain arte indarrean zeudenak.

#### XVI. AZKEN XEDAPENAK

1. Ordenantza hau eta bere Eranskina, behin betiko onartu zen bertan adierazten den egunean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

2. Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

#### XVII. ORDENANTZAREN ERANSKINA

Tasak.

Kontagailu bakoitzeko 60 euroko mantentze-tasa finkoa kobratuko da:

Hornidura-tasa zatika, arrunta:

KONTSUMOA	TASA
120m <sup>3</sup> -ra arte	0,30 €/ m <sup>3</sup> -ko
121m <sup>3</sup> -tik 160m <sup>3</sup> -ra	0,35 €/ m <sup>3</sup> -ko
161m <sup>3</sup> -tik 200m <sup>3</sup> -ra	0,40 €/ m <sup>3</sup> -ko
201m <sup>3</sup> -tik 300m <sup>3</sup> -ra	0,50 €/ m <sup>3</sup> -ko
300m <sup>3</sup> baino gehiago	0,60 €/ m <sup>3</sup> -ko

Abeltzaintzako ustategietarako eta ostalaritza eta turismo establezimenduetarako hornidura-tasa:

120 m <sup>3</sup> -ra arte	0,30 €/ m <sup>3</sup> -ko
121 m <sup>3</sup> baino gehiago	0,35 €/ m <sup>3</sup> -ko

Hornidura-tasa zatika, murriztua:

200 m <sup>3</sup> -ra arte	0,30 €/ m <sup>3</sup> -ko
201 m <sup>3</sup> -tik 300 m <sup>3</sup> -ra	0,35 €/ m <sup>3</sup> -ko
300 m <sup>3</sup> baino gehiago	0,40 €/ m <sup>3</sup> -ko

Saneamendu-tasa zatika, arrunta:

KONTSUMOA	TASA
120m <sup>3</sup> -ra arte	0,10€/m <sup>3</sup> -ko
121m <sup>3</sup> -tik 160m <sup>3</sup> -ra	0,15€/m <sup>3</sup> -ko
161m <sup>3</sup> -tik 200m <sup>3</sup> -ra	0,20€/m <sup>3</sup> -ko
201m <sup>3</sup> -tik 300m <sup>3</sup> -ra	0,30€/m <sup>3</sup> -ko
300m <sup>3</sup> baino gehiago	0,35€/m <sup>3</sup> -ko

Abeltzaintzako ustategietarako eta ostalaritza eta turismo establezimenduetarako saneamendu-tasa:

120m <sup>3</sup> -ra arte	0,10€/m <sup>3</sup> -ko
121m <sup>3</sup> baino gehiago	0,15€/m <sup>3</sup> -ko

Saneamendu-tasa zatika, murriztua:

KONTSUMOA	TASA
120m <sup>3</sup> -ra arte	0,10€/m <sup>3</sup> -ko
121m <sup>3</sup> baino gehiago	0,15€/m <sup>3</sup> -ko

Zalduondo, 2020ko abenduaren 14a

*Alkatea*

*GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE*